

ARAUTEGI OROKORRA

Hitzaurrea

Apustu bat egin aurretik, KIROLJOKOA ARAUTEGIA eta baita kirol bakoitzeko edota bere baitan dagoen lehia konkretu bateko baldintza berezituak ezagutzea eta onartzea bezero bakoitzaren ardura da.

KIROLJOKOA® Tele Apostuak Promotora de Juegos y Apuestas S.A.-ren marka erregistratua da.

Tele Apostuak Promotora de Juegos y Apuestas S.A. apirilaren 19ko 95/2005 Dekretuak onestutako Euskal Autonomia Erkidegoko Apustu Erregelamenduak onartutako apustuen ustiaketarako Eusko Jaurlaritzak baimendutako enpresa bat da.

“KIROLJOKOA APUSTU SISTEMA”rekin antolatutako apustuak indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Apustu Erregelamenduak araututa daude.

Tele Apostuak KIROLJOKOA Arautegia inongo ohartarazpenik gabe aldatzeko edota zabaltzeko eskubidea hartzen du beretzat, publikatzen duen unetik aurrera hura egongo delarik indarrean. KIROLJOKOA Arautegia Apustu-etxeetan, Kiroltxokoetan eta Kiroljokoa apustu-makinetan egongo da ikusgai eta, era berean, ***www.kiroljokoa.com*** web cunean egongo da eskegita.

Erreklamazioak eta bestelako komunikazioak honako helbidera bideratu behar dira: Tele Apostuak Promotora de Juegos y Apuestas S.A., Azitain Industrialdea 3-K, 2.a, 20.600 Eibar, han baitu bere egoitza soziala.

1. Kapituluua: SARRERA

Arautegi honen helburua "KIROLJOKOA APUSTU SISTEMA"n gauzatzen diren apustuen baldintza orokorrak ezartzea da. "KIROLJOKOA APUSTU SISTEMA"n apustu egiteak ez du esan nahi, inondik inora ere, Tele Apostuak eta apustu egin dute erabiltzaileen artean kontraturen bat hitzartzen denik, azken hauen aktibitatea honako kasu hauetara mugatzen delarik:

- Apustuak eta apustu-proposamenak burutzea.
- Irabazleak diren apustuak kobratzea.
- Baliogabetutako apustu eta apustu proposamenei dagokien diru-itzulketa kobratzea.

2. Kapituluua: IZENDEGIA

Apustua: Lehia bateko emaitzei dagokion apustu aukera baten alde diru-kopuru bat arriskatzen den aktibitatea.

Lehia: Emaitza jakinekorik gabeko eta apustuan parte hartzen dutenekin zerikusirik ez duen aurrez zehaztutako gertaktria.

Bertan behera geratutako lehia: Hasi eta aurreikusitako amaierara iritsi aurretik etenda geratu den lehia. Bertan behera geratutako lehiek baliozko emaitzak izan ditzakete.

Baliogabetutako lehia: Lehia bateko emaitzei zegokien egin izan zitezkeen apustuei buruz, hasi gabe, edo hasita eta amaituta edo ez, geratu den lehia horrek eraginik ez duenean. Baliogabetutako lehietako emaitza bat bera ere ez da kontutan hartzen.

KIROLJOKOA ARAUTEGIA

Argitalpen Data: 2009/11/12

Lehietako erakunde eskudunak: Lehietako emaitzei buruz erabakiak hartzen dituzten erakundeak. Goi-mailatik beherantza jeitsiaz, lehietako erakunde eskudunak hauek dira: Erakunde ofizialak (federazioak), lehiako epaileak eta Entitate antolatzaileak.

Pronostikoa: Apustu eta apustu-proposamenak egiterakoan lehie buruz apustulariek egiten duten emaitzak asmatzeko saiakera. Apustu bateko pronostikoak egokiak izateak edo ez izateak dakar bere emaitza.

Apustu-modalitatea: Apustu-modalitatean bertan zehazten diren lehietako emaitza zehatz batzuri buruzko "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA" k eskainitako apustu aukerak.

ETXEAREN AURKAKO apustua: Erabiltzaile apustulariak "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA" K eskaintzen dion apustua onartzen duenean. Jaso beharreko saria apustu egindako kopurua sistemak aurrez emandako apustu koefizientea edo momioarekin biderkatzeak ematen du.

ELKARRENGANAKO apustua: Erabiltzaile desberdinek apustu egindako diru-kopuruak gehitzen dira (Haserako funtsa) eta, behin Tele Apostuak-ek berari dagokion komisioa jaso ondoren, gelditzen dena (Funts Banagarria) apustuko emaitzak asmatu dituztenen artean banatzen da.

TRABESEKO apustua: Tele Apostuak-ek bi apustulariren artekari eta apustu egindako kopuruaren bermatzaile lana egiten du, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzarekin (JIZ) onartu eta hitzartutako artesaria kenduz.

Apustu-proposamenak: Jokatu gabe dauden lehie buruzko pronostikoak dira; pronostiko hauek, behin Tele Apostuak-ek baimenduta, "KIROLJOKOA APUSTU SISTEMA" k gauzatu ditzake eta sistema honen barnean beste apustulari batzuk onartu ditzakete. Apustu-proposamenak soilik ***Trabeseko Apustuetan*** egin daitezke.

3. Kapituluua: APUSTUAK GAUZATZEA

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n apustuak gauzatzea "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k apustu hori egintzat eta onartutzat hartzeko beharrezko eginbeharra da. Tele Apostuak-ek, bere Arautegietan zehazten den baldintzetan, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n gauzatzen diren apustu irabazle guztietako sariak ordaintzeko konpromisoa beregain hartzen du.

Apustu bat "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n gauzatua izan dela onartzeko prozesuaren honako gutxienerako aldi hauek bete behar dira:

- Erabiltzaile apustugileak "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k proposatutako lehia bateko emaitzei buruzko pronostiko bat edo gehiago egin behar ditu.
- Erabiltzaile apustugileak apustuan arriskatu nahi duen diru-kopurua ordaindu behar du.
- "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k aurreko bi eragiketak balioztatu behar ditu.
- "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k egindako balioztatzea jasotzen den ordain-agiria jaulki behar du.

Apustua gauzatu gabetzat joko da aurreko aldi horietakoren bat osatu ezinik gelditzen bada.

Erabiltzaile apustugileak apustua gauzatu aurretik berak nahi dituen pronostiko eta datuak sartu dituela egiaztatu behar du, eta apustua gauzatzean "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n sartzen dituen datu eta pronostikoen erantzule bakarra bera da.

Erabiltzaileak apustu egin nahi duen diru-kopuruaren ordainketa esku-dirutan edo Kiroljokoa txartelaren bidez egin daiteke. Erabiltzaileak apustua egin aurretik ordaindu beharreko diru-kopurua "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n egiaztatu dezake. Dena dela, Tele Apostuak-ek apustu konkretu batzuk ez gauzatzeko eta apustu egiteko diru-kopurua murrizteko eskubidea beregain hartzen du, inongo justifikaziorik eman gabe.

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k balioztatzea, sartutako pronostikoen eta egindako ordainketaren onarpena eta erregistroa, sistemak berak egiten du.

Erabiltzaile apustugileak ordain-agiria egoki inprimatu dela egiaztatu behar du.

Erabiltzaile apustugileak ezingo du apustu bat baliogabetu edo aldatu berau "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k balioztatua izan bada. Horregatik, Tele Apostuak-ek soilik apustua egin eta hurrengo 12 orduetan aurkeztutako erreklamazioak hartuko ditu kontuan, beti ere apustua gauzatu duten ekipoen errua bada.

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k ez du apusturik onartzen behin lehiak hasi eta gero, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k berak **Zuzeneko Apustu** gisa baimenduak ez badira; beraz, behin hasitako eta **Zuzeneko Apustu** gisa baimenik ez duten lehie buruzko apustuak baliogabetzat hartzen dira.

Edozein motako apustuak gauzatu, trabesekoa, elkarrenganakoa edota etxearen aurkakoa izan, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n apustu egindako erabiltzaileak honako hauek ezagutzen eta onartzen ditu:

- Sistemaren funtzionamendua ezagutzen duela.
- Apustu-sistemak berak jaulki dion apustu-agiriak bere baitan dituen informazioa eta datuak onartzen dituela.
- KIROLJOKOA Apustu Arautegiak ezagutzen eta onartzen dituela.
- Apustu egiten ari den kirol lehiaren emaitzaren berri ez duela.
- Bere apustua KIROLJOKOA Apustu Arautegietan finkatutako baldintzetara atxikita dagoela.

4. Kapituluak: APUSTU ORDAIN-AGIRIAK

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k jaulkitako apustuaren ordain-agiria da apustuaren gauzatzea egiaztatzen duena, ordain-agiri hau delarik apustua gauzatu denaren froga bakarra eta, dagokionean, apustu irabazleen ordainketa eta baliogabetutako apustuen itzulketa eskatzeko dokumentu bakarra. Erabiltzaile apustugilearen ardura izango da gauzatuako apustuak zaintzeko ardura.

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n gauzatutako apustu baten ordain-agiriak gutxieneko honako informazioa izan beharko du bere baitan:

- Tele Apostuak enpresa ustiatzailearen izena eta zenbakia.
- Apustua gauzatu den apustu-makinaren edota TPV-aren identifikazioa.
- Zein lehiari buruz egin den apustu.
- Apustua gauzatu den urtea, hilabetea, eguna eta ordua.
- Apustu egin den diru-kopurua.
- Momioa edo apustuaren koefizientea (kuota), dagokionean.

5. Kapituluua: LEHIETAKO EMAITZEN BALIOZTATZEA

Hasi gabeko lehiak:

Lehia bat **Amaiera-epean** ez bada hasten, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k baliogabetutako lehia gisa hartuko da.

Lehia bat hasi aurretik erakunde eskudunek baliogabetzen badute, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k une horretantxe baliogabetutzat joko du.

Erakunde eskudunek hasi gabeko lehie eman diezazkieketen emaitzak "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"rentzat **baliogabeak** izango dira eta ez dira kontuan hartuko sistema honek baliogabetuta baditu.

Hasitako lehiak:

Programatutako amaiera epean osorik jokatzen diren lehien baliozko emaitza lehiako erakunde eskudunek erabakitakoa izango da. "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k edozein erakunde eskudunek aurren publikatzen duen emaitza hura hartuko du baliozko emaitza gisa.

Erakunde eskudun batek hasitako lehia bat baliogabetzen badu, apustu kontuei dagokionez "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"rentzat **baliogabeak** izango dira, lehian izandako emaitzak zein erakunde eskudunek beraiek lehiari emandako emaitzak izanak izan.

Hasitako lehia bat programatutako amaiera epearen aurretik eteten bada, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k honako emaitzak **baliozkotzat** hartuko ditu:

- "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA" k onartutako **Amaiera-epean** bukatzen diren emaitzak edota eteteko momentuan amaituta dauden lehiaren modalitateetako emaitzak.
- Erakunde eskudunak **Amaiera-epean** amaitutzat ematen dituen lehiaren modalitateetako emaitzak. Lehia bere osotasunean ez delako jokatu balio gabetuak geratzen diren apustu-modalitateak arau honetatik kanpo daude (Emaitza zehatza, Diferentzia...).
- **Elkarrenganako apustuekin** zerikusia duten lehiaren emaitzak, kirol bakoitzean hurrengo paragrafoan zehazten den lehiaren gutxieneko zenbatekoa jokatu bada, amaitu ez diren edota erakunde eskudunek amaitutzat eman ez dituzten apustu-modalitate haietan, elkarrenganako apustu-erabakitarako **Amaiera-epea** pasatuta.

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA" rentzat baliozkoak izateko jokatu behar izan den lehiaren gutxieneko zenbatekoa:

1) Lehiaren programatutako hedadura denboraz, itzuli kopuruaz edota distantziaz neurtzen bada, erdia (%50) jokatu bada:

Denbora adibideak: Futbola, Saskibaloia, Eskubaloia, Errugbia...

Itzuli kopuru adibideak: Pistako Automobilismoa eta Motoziklismoa...

Distantzia adibideak: Txirrindularitza, Rallyak...

2) Tenis lehiak:

Hiru setera programatutako tenis lehietan set bat osorik jokatzen bada, eta bost setera programatutako lehietan bi set osorik jokatzen badira.

3) Euskal Pilota lehiak:

Euskal Pilota lehiaren emaitzak parte-hartzaileetako batek lehiarako programatutako tantoen %75a lortu duela erakusten badu.

Ez dira baliozkoak izango apustu mota bakoitzari dagokion **Amaiera-epean** hasi eta amaitu gabeko lehietako beste emaitza guztiak.

“KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA”k lehia baten **Amaiera-epe** gisa onartu ditu:

- **Hogeita hamar egun** etxearen kontrako eta trabeseko apustueta, lehia jokatzeko programatuta dagoen eguneko 24 orduetan kontaktzen hasita.
- **Hogeita hamar egun** elkarrenganako apustueta, lehia jokatzeko programatuta dagoen eguneko 24 orduetan kontaktzen hasita.

Behin lehia bateko balioztatutako emaitza aldatu edo baliogabetu izanak, balioztatutako emaitza horrek apustu irabazleen eta baliogabetutako apustuen itzulketei dagokionean ez du eraginik izango.

Kirol lehiak ez direnean edota ofizialak ez diren kirol lehietan, apustuak gauzatu aurretik emaitza bat baliozkoa izateko baldintzak ezarriko ditu.

Apustu ordain-agirian zein programa edota beste edozein informazio-euskarritan jasotzen diren emanaldien data, ordutegi edota zuzeneko emaitzen informazioa gutxi gorabeherakoak dira eta emaitzen baliozkotasunari ez diote eraginik egiten.

6. Kapitulua: APUSTUAK BALIOGABETZEA

Honako kasuetan, Tele Apostuak-ek “KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA”n gauzatutako apustuak baliogabetzeari ekingo dio:

- “KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA”ren erruz okerreko apustuak gauzatu badira.
- Apustuak emaitzei dagokionean baliozkoak ez diren pronostikoekin gauzatu direnean.
- Apustuak baliogabetuak izan diren apustu-modalitateetan gauzatu direnean.
- Apustua gauzatu zen unean asmatzeko inongo aukerarik ez zuten pronostikoekin gauzatutako apustuak direnean.

Honako kasuetan, Tele Apostuak-ek apustuak baliogabetzeko eskubidea beretzat gordetzen du:

- Elkarteari iruzur egiteko asmoz pertsona edo talde batek egiten dituztenean.
- Lehia batek emaitzetan eragina izaterainoko aldaketa garrantzitsuak jasaten dituztenean eta aldaketa hauek egin aurretik gauzatutako apustuak hutsaltzen dituztenean.

7. Kapitulua: Apustu irabazleak

Tele Apostuak-entzat apustu irabazleak, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n egoki gauzatuta, apustuarekin zerikusia duten lehietako baliozko emaitzekin bat egiten duten pronostikoak dituztenak dira.

Apustu irabazlearen saria apustuan asmatutako pronostikoei dagokiona izango da, apustu-modalitate horrentzat "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n aurrez erabakitako baldintzen arabera.

Apustu-modalitate batean emaitza irabazle bakarria aurreikusten den lehietan irabazle bakarria erabakitzea ezinezkoa bada, asmatutako emaitza bat baino gehiago hartu ahal izango dira ontzat eta, horregatik, sarien banaketan aldaketak egin beharko dira. Aldaketa hauek apustu mota bakoitzarentzako aurrez erabakitako irizpideen arabera egingo dira:

- ***Etxearen aurkako apustuak:*** Etxearen aurkako apustu irabazleei dagokion saria lehian izan diren emaitza irabazleen artean zatitu beharko da.
- ***Elkarrenganako apustuak:*** Emaitza irabazleekin bat egiten duten pronostikodun elkarrenganako apustu guztiak apustu irabazleak izango dira.
- ***Trabeseko apustuak:*** Apustua gurutzatu duten bi aldeen pronostikoek emaitza irabazleekin bat egiten badute, apustua bi aldeentzako baliogabetua geratuko da.

8. Kapitulua: APUSTU IRABAZLEEN KOBRANTZA

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k gauzatutako apustu irabazleek dagokien sariaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea izango dute. Apustu irabazle baten kobrantza eskubidea baliogabetu gabeko apustu irabazle baten apustu ordain-agiria izateak ematen du.

Tele Apostuak-ek apustu irabazleen kobrantza prest izango du behin "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n lehietako baliozko emaitzak sartu eta gero (lehiaren itxiera).

Apustu irabazleak KIROLJOKOAREN Apustu-etxeetan, Kiroltxokoetan edota Apustu-makinetan apustu irabazlearen ordain-agiria baieztatu ondoren kobratu daitezke.

- **Apustu-makinetan kobrantza:** KIROLJOKOAREN apustu-makinek apustu irabazleen ordain-agiriak baieztatzen dituzte, dagokion diru-kopuruaren ordainketa KIROLJOKOA txartelaren saldoan sartuz edota KIROLJOKOA Zor-agiria igorritz egin daitekeelarik.
- **Apustu-etxeetan eta Kiroltxokoetan kobrantza:** Apustu irabazleen ordain-agiriak Apustu-etxeetan eta Kiroltxokoetan ere baieztatu ahal izango dira, dagokion diru-kopuruaren ordainketa esku-dirutan, KIROLJOKOA txartelaren saldoan sartuz edota KIROLJOKOA Zor-agiria igorritz egin daitekeelarik.

Behin apustu irabazleak kobratuta, apustu ordain-agiriak guztiz baliogabetuak geratzen dira.

Bikoiztutako edo kopiatutako apustu ordain-agiriekin kobratzen bada, Tele Apostuak-ek agiri originalaren jabeak baimendutako kobrantza dela ulertuko du eta agiri original hori guztiz baliogabetua geratuko da, Tele Apostuak-ek hala baderitzo hasi ditzakeen prozedurak baztertu gabe.

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n apustu ordain-agiri bat baieztatzerakoan okerren bat egin eta Tele Apostuak-ek apustu ordain-agiri horri ez dagokion diru-kopuru bat ordainduko balu, erabiltzailearen ardura da Tele Apostuak-i okerraren berri ematea eta, honi, dagokiona baino gehiagoko diru-kopurua itzultzea edota kopuru hori osatzeko falta den dirua eskatzea.

300 euro edo gutxiagoko apustu irabazleen erabiltzaileak ordainketa KIROLJOKOA Apustu-etxeetan esku-dirutan egitea eskatu dezake.

Tele-Apostuak-ek 300 eurotik gorako apustu irabazleen ordain-agiriak kobratzera datorrenaren identifikazioa eskatzeko eskubidea dauka.

Apustu irabazleen kobrantza-epe eskubidea kobrantza egin daitekeen datan hasi eta hiru hilabeteren buruan betetzen da.

9. Kapituluua: BALIOGABETUTAKO APUSTUEN ITZULKETA

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k gauzatutako eta gero baliogabetutako apustuek apustuaren diru-kopuru guztia eskuratzeko edota prest izateko eskubidea izango dute. Eskubide hau baliogabetu gabeko apustuaren ordain-agiriaren jabetzak ematen du.

Tele Apostuak-ek, behin "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k apustuaren baliogabetzea publikatzen duenetik 24 ordu arteko epean, baliogabetutako apustuen diru-kopuruaren itzulketa prest izango du.

Erabiltzaileak baliogabetutako apustuen diru-kopurua prest izango du apustu berriak gauzatzeko kreditu gisa edo apustu irabazleen sarien kobrantzarako adierazi den modu eta baldintza berdinetan Apustu-etxeetan, Kiroltxokoetan edota Apustu-makinetan itzulketa eskatu ahal izango du.

10. Kapituluua: KIROLJOKOA ZOR-AGIRIAK

KIROLJOKOA Zor-agiriak "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k jaulkitako ordainketa egiteko agiriak dira eta apustu irabazleei dagokion sariak ordaintzeko edo baliogabetutako apustu edota apustu proposamenei dagokien dirua itzultzeko balio dute. KIROLJOKOA baliogabetu gabeko Zor-agiriaren jabe izateak zor-agiriak bere baitan duen diru-kopuruaren kobrantza eskubidea bermatzen du.

Zor-agiriak KIROLJOKOaren Apustu-etxeetan eta Kiroltxokoetan edota banku batean bihurtu daitezke diru; behin diru bihurtuta guztiz baliogabeturik geratuko dira.

KIROLJOKOA Zor-agiri baten zaintza erabiltzaile jabearen ardura izango da, horrela bere bikoizketa edota kopia bitartez egin daitezkeen iruzurrak ekiditeko. Bikoiztutako edo kopiatutako KIROLJOKOA zor-agiri bat kobratzen bada, Tele Apostuak-ek agiri originalaren jabeak baimendutako kobrantza dela ulertuko du eta agiri original hori guztiz baliogabetua geratuko da, Tele Apostuak-ek hala baderitzo hasi ditzakeen prozedurak baztertu gabe.

11. Kapituluua: KIROLJOKOA TXARTELA

KIROLJOKOA Txartelak apustu irabazleen, baliogabetutako apustuen eta baliogabetutako trabeseko apustu proposamenen kobrantzarako, eta "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n gauzatutako trabeseko apustu eta apustu proposamenen ordainketarako dira soilik.

Apustu irabazleei dagokion kobratutako diru-kopuruak soilik kobratu eta 4 ordu pasatu ondoren erabili ahal izango dira apustu berriak egiteko.

KIROLJOKOA Txartelean pilatu daitekeen gehieneko diru-kopurua 1.000 euro da.

KIROLJOKOA Txartelak anonimoak izan daitezke edota txartelaren jabetza egiaztatzeko NAN edo pasaporte zenbaki bati lotu daitezke eta segurtasun pasahitz batekin (PINa) babestu. Bezeroaren ardura da bere KIROLJOKOA Txartelaren pasahitza isilpean gordetzea.

KIROLJOKOA Txartel anonimoek segurtasun pasahitz bat izan dezakete: PINa edota aurreneko mailako segurtasun pasahitza. Hala bada, txartelarekin ohiko eragiketak egiteko PINa beharrezkoa da. Tele Apostuak-entzat KIROLJOKOA Txartel anonimo baten eta bere saldoaren legezko jabea gainean daraman erabiltzailea eta balizko segurtasun pasahitza ezagutzen duena izango da, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n txartel horrekin egindako eragiketak baliozkotzat joaz.

KIROLJOKOA ARAUTEGIA

Argitalpen Data: 2009/11/12

Era berean, NAN edota pasaporte zenbaki bati lotutako KIROLJOKOA Txartelek segurtasun pasahitz bat izan dezakete: PINa edota aurreneko mailako segurtasun pasahitza. Tele Apostuak-entzat NAN edota pasaporte zenbaki bati lotutako KIROLJOKOA Txartel baten eta bere saldoaren legezko jabea dokumentu hauen jabea izango da, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n PINaren bidez egindako eragiketak baliozkotzat joaz.

KIROLJOKOA Txartela galduz gero edota lapurtua izanez gero, Tele Apostuak-ek bere jabearen aldetiko salaketa momentutik txartel hori baliogabetzeko konpromisoa hartzen du, baina ordurarte egin ahal izan diren eragiketen ardura ez du beregain hartzen. Tele Apostuak-ek salaketaren momentuan txartelek izan ditzaketen saldoak legezko jabeentzako prest izango ditu.

Okerreko pasahitza (PINa) 3 aldiz jarraian sartuz gero, Tele Apostuak-ek txartela blokeatu egingo du. Soilik NAN bati edota pasaporte bati lotutako KIROLJOKOA Txartelak desblokeatu ahal izango dira, KIROLJOKOA Apustu-etxeetan NANA edota pasaporte jabeak berak aurkeztuz.

KIROLJOKOA Txartel baten jabeak bere txartelean saldo positiboa edozein momentutan erabili ahal izango du KIROLJOKOA Apustu-etxeetan edota edozein KIROLJOKOA Apustu-makinetan KIROLJOKOA Zor-agiria jaulkita.

12 hilabete baino gehiago erabili gabe dauden KIROLJOKOA Txartelak galdutzat joko dira eta Tele Apostuak-ek baliogabetu egingo ditu. Beraz, bere erabiltzaile jabeak saldoa galduko du eta beraz Tele Apostuak-entzat geratuko da.

12. Kapituluua: DEBEKUAK

Tele Apostuak-ek "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n apustuak egitea espresuki debekatzen die:

- Adingabekoei.
- Legez ezgaituta daudenei, eta jokoaren ordena, lasaitasuna eta garapena eragozten dituztenei.
- Titularrei, akziodunei, kapitalaren ordezkariari eta apustuaren elkarte ustiatzailearen partaideei eta, hala nola, aipatu enpresetako langileei eta zuzendariei, hauen ezkontideei, eta lehen mailako arbasoei edota ondorengoei.
- Apustugai den jardueran bere funtzioak betetzen dituen kirol jardueretako, txapelketetako edota beste motetako epaileei, hauen erabakien aurka errekurtsoak ebazten dituzten pertsonari eta Arautegi honetan araututako Apustu Komisioko partaideei.
- Apustuen kontrol eta ikuskaritza xede duten funtzionarioei.

Tele Apostuak-ek KIROLJOKOA Apustu-etxeetan sarrera espresuki debekatzen die:

- Adingabekoei
- Mozkorturik edota substantzia estupefazianteak harturik daudenaren zantzuak erakusten dituztenei.
- Apustu-etxeetako ordena eta lasaitasuna nahasten duten pertsonari.